

XagunArtea

2010eko maiatzaren 24a

Xagun aldizkaria

53. alea

Herri-giro ederrean ospatu zen San Isidro eguna baserritarren omenez



Ez zen giro kanpoan. San Isidro ingurua normalean ereizio garaia izaten bada ere, aurtengo eguraldi txakurra tarteke, epelerako giro hobea egon zen. Eta hotza nahiz euria gaindituta, zeraindarrok herri-giroko festa ederra ospatu genuen baserritarren ohoretan. Eguerdian hasi zen festa: herritarrak frontoi inguruan eta tabernako babesean biltzen hasi ziren. Orduiak aldera hasi zen bazkaria pilotalekuko aterpean. Nahiko hotz egiten zuen, baina otorduak aurrera egin ahala, jendea joan zen pixkanaka berotzen. Guztira 100 zeraindar inguru elkartu ginen San Isidroren aitzakian. Eta horien artean Sagastibil baserriko seme Markos Alustiza, joan den apirilean 100 urte bete dituen. Mendebeteko urtemuga hori ospatzeko, bazkalostean oroigarri txiki bat eskaini zion Udalak. San Isidro joan da datorren urtera arte, eta baserritarrei sororako moduko eguraldia iritsi zaie.



Goierriko eskola txikien ospakizuna Pirritx, Porrotx eta konpainia lagun hartuta



Goierriko eskola txikien festa Itsasondo, Olaberria, Gabiria eta Zeraingo eskolek urtero herri horietako batean egiten duten jaia da. Aurten Zeraini tokatzen zitzaion jaia antolatzeara eta gonbidapen berezi bati erantzunez oso ospakizun berezia prestatu zuen Basarte Guraso Elkarteak maiatzaren 8rako: Pirritx, Porrotx, Marimototx eta konpainiaren emanaldi berriko bideoaren grabaketan parte hartzea. Lau herrietako haur eta gurasoak Urnietan elkartu ziren. Pailazoek lagunduta, festa giro bikainean ospatu zuten Goierriko eskola txikien eguna.



Gipuzkoako bola txapelketa Zerainen jokatu da ekainaren 6an



Ekainaren 6an, igandea, emakume, beterano, jubenil eta infantilen Gipuzkoako bola txapelketa jokatu da Zerainen. Goizez 10.30etatik 11.30etara eta arratsaldean 16.30etatik 17.30etara egingo dira tiraldiak.

Basuraren tasa bi zatitan ordainduko da aurrerantzean

Orain arte zaborren tasa urtean behin kobratu izan da, urtearen amaieran, hain zuzen. Aurtendik aurrera (2010), urteko tasa bi zatitan kobratzea erabaki da: lehen zatia ekainean eta bigarrena abenduan. Herriko zergei dagokienez, urtetik urtera igoera handiena eduki duena basurena izan da. Horregatik erabaki da bi zatitan kobratzea eta herritarrei ahalik eta gehien erraztea ordainketa. Inork zalantzarik baleuka udaletxera jo dezake argibide eske.

Zozomikote

Denboratxoa bada, Elenak hitz honi heldu nahi ziola. Batean kontu bat dela, eta hurrengoan bestea, alde batera utzita eduki dugu orain arte. Gaurkoan, azkenik, zezenari adarretatik heltzea erabaki dugu. Maiatzean bagaude ere, apirilko alea da gaurko *Xaguarte* hau, eta alde horretatik ez gabilta hain oker. Martxo-bukaera eta apiril-hasiera izanik zozomikote-
 en garaia, hor nonbait gabilta.

Gatozen beraz harira: nongo hitza da *zozomikote*? Gipuzkoako *det* eta *dut* esparrukoa, batez ere. Esparru horretan sartzen da, jakina, Zerain: ondo ezaguna da hitz hori, adin batetik gorako zeraindarren artean. Gatozen hurrengo puntura: zer dira *zozomikoteak*? Hiztegiari jotzen badugu, informazio zabala jasoko dugu. Hona, besteak beste, OEHk zer dioen. *Zozomikote* hitzak, lehenik eta behin, "emparejamiento de tordos" esan nahi du: zozoparejak, zozo-bikoak sortzea eta, bereziki, pareja horiek sortzen diren garaia. Elurra egiten duen garaia elurtea den bezala, eta euria gogor egiten duen aldia euritea den moduan, zozobikoak sortzen diren urte-garaia zozobikotea da antza. Hortik datoz, inondik ere, hitzari ibilian-ibilian sortu zaizkion hots-aldaerak: *zozomikote xoxomikote*, *xoxobikote*, *zozomikatu*, *zozomikati* eta *zoromikote*. Jatorrizko adiera hori antzematen zaie, nolana ere, hiztegiak aipamen hauei: "Emparejamiento. *Zozo-mikote* (Goierrri), *xoxo-bikote* (Azpeiti). *Xoxobikoteetan eguraldi txarrak*, malos tiempos en emparejamientos de tordos". Baita Orixeren bertso-zati honi ere: "*Zozo-bikote datorrenean / ez dira negubildurti*. Cuando llegue el emparejamiento de los tordos". Berdin beste honetan: "*Zozo-mikote bero da asia; / eldu da apiril biribil*". Bide beretik dabil Munita: "*Pozik ala ere zozomikoteak ondo joaten badira!*" urte-garaiaz ari dira hor

Jatorrizko adiera horri aplikazio semantiko konkretua eman dio Gipuzkoaldeko euskaldun-jendeak, denboraren harian: martxo-bukaerako eta apiril-hasierako egun jakinak adierazteko erabiltzen da, halakoetan, *zozomikote* hori. Justu-justu zer egun,

ez da esaten erraza: aldea dago leku batetik bestera. Ondoko adibideok ematen dute, nolana ere, aldakuntza horien berri: baten esanean, "se denominan con este nombre o con su variante zozomikatuak los primeros días del mes de abril". Beste batek honela dio: "época entre 27 de marzo y 3 de abril". Hirugarren batek, berriz, honela: "tiempo entre el mediodía del treinta y uno de marzo y día y medio del siguiente abril". Ez dago alde handirik batetik bestera, baina aho batezko definiziorik ere ez dago hor.

Badute esplikazio hoiek bere egiantza: martxo-bukaera eta apiril-hasiera ez dira urte-garai desegokia, txoriak binaka bildu eta kabia egiten hasteko. Duda sortzen digu, halere, hurrengo puntuak: zergatik zozoak aukeratu ziren egun horiek izendatzeko, eta ez birigarroak, txantxangorriak edo besteren bat? Ez dakit horri erantzuten. Txori-kontuan nik baino ondotoz gehiago jakin behar da horretarako, edota antropologia kontuan (garai batean Joxemiel Barandiaran bezala) jakitunago izan.

Gatozen, ordea, hurbilagoko kontuetara. Nola dira gauzak Zerainen? *Zozomikoteak*, egun-sail jakinaz gainera, artzantzako pasadizo beldurgarri batez uztarturik ageri dira hemen. Hona, urrutirago gabe, Elenak jasotako testigantza: "Urte batez oso eguraldi onak egin omen zituen martxoan. Hori ikusita honela esan omen zuen artzain batek: "Ai martxo, martxo: nire ardi koxkorrenak egin zioz errekatxoari salto!". Martxoari ez gustatu, nonbait, artzainaren ateraldi hori. Haserretu egin omen zen, eta apirilari honelako eskea egin omen zion: "apiril biribil, emaidak egun bi eta erdi, ken diezaiodan artzain horri artaldea eta begi bi".

Bai eta eman ere apirilak martxoari, honek eskatutakoa. Etorri ziren beraz egun horiek. Euria ikaragarri egin omen zuen. Errekak handitzeraino, alajainkoa. Hor hasi omen ziren artzainaren estuasunak. Bere ardiekin erreka pasatzen hasi, eta ezin: urak ardi guztiak aurrean eramaten zizkion, nonbait, eta artzainak ezin ezer

egin. Hori ikusita, aharia behintzat salbatzen saiatu omen zen artzaina. Besoetan hartu zuen, ito ez zedin. Ordu txarrean ordea: burua astintzen hasi zen aharia, eta adarrekin begi bat atera zion artzainari.

Galtzen ari omen da hitza herrian. Hala dio Elenak, ohiko moduan hahemen proba egin ondoan. Pena da noski. Ezinbesteko gerakaria ere bai, bestalde. Ez gara tresnak, lanbideak, naturako sorkariak eta horiei guzkiei dagozkien izenak bakarrik galtzen ari. Tresna zaharkituz eta garo-usaineko lanbideez gainera mundu-ikuskerak bat, aiton-amonetatik ilobetara transmititu izan diren sinesmen eta esaerak, ipuinak eta aipuak berekin zituen mundu-ikuskerak oso bat, galtzen ari zaigu funtsean: horrekin batera doaz ezinbestean, herri-jakintzaren zakarrontzira, zozomikoteak eta horren antzeko beste mila. Ez da gustu kontua, moda edo eskolatze falta. Hori baino ondotoz zabalagoko mudantza da, hitz horiek galbidera daramatzana. Transformazio soziala esaten diogu horren oinarrian dagoen zaharberritze bortitzari. Hala da, gustatu zein ez. Ez du zaharberritze horrek, ezinbestean, hizkuntzaren galera ekartzen. Modernizaziorako bidean zaharra eta berria, tradizioa eta etorkizuna beren gisa irabiatzen, konbinatzen eta birmoldatzen dakituen hiztun-herriek bizirik eusten diote berritze-bide horri beren hizkuntzan: osaera soziokulturalak, hizkuntza bere altzoan biltzen duen egitura-multzak, modernizazioak berekin dakarren transformazio osoari ondo eusten diote: azal eta mami nabarmenki transformatu arren "lehenago berberak" izaten jarraitzen dute. Hor dago gakoa: autorregulazio soziokulturalerako ahalmen-maila ohargarria, eta hiztun-taldeen beraien hartarako delibero argia, behar da horretarako. Hor dago koska: Pantojaren eta Belen Estebanen eguneroko saski-naski bihurriaren kulunkan kateaturik gauden artean leku meharra gelditzen zaigu *zozomikoteentzat*.

Mikel Zalvide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

APIRILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
				1	2	3	4
Euria (l/m)	GUZTIRA: 48,5l.			2,5	0	14	3
C° altuena	ALTUENA: 32°			15	19	18	4
C° baxuena	BAXUENA: 0°			3	3	9	5
	5	6	7	8	9	10	11
Euria (l/m)	3	3	10	1	0	0	0
C° altuena	21,5	22	14	18	21,5	27	23
C° baxuena	0	10	7	6	6	3,5	4,5
	12	13	14	15	16	17	18
Euria (l/m)	0	0	0	0,25	0	0	0
C° altuena	17	19	19	15	28	19	21
C° baxuena	7	2	3	5	7	5	10
	19	20	21	22	23	24	25
Euria (l/m)	1	0	0,75	9	2	0	0
C° altuena	26	27	28	17	17	28	25
C° baxuena	10	8	8	13	12	8	9
	26	27	28	29	30		
Euria (l/m)	0	0	0	4	1		
C° altuena	27	30	31	32	19		
C° baxuena	10	9	9	18	11		

Apirila epel eta lehor

Negu hotzaren ondoren, apirila heldu da. Esan ohi denez bustia izaten da, baina aurtengoan alderantziz gertatu da; aspaldiko euririk gutxiena egin du hilabete honetan. Temperaturek diotenez, berriz, epela, ia-ia beroa izan da. Elorri-beltza ikusten dugu lore betean, ea udazkenean arantxamilo ugari izaten duten.



Basquetour-eko zuzendaria Aizpitara bisitan



Joan den maiatzaren 20an, Mutiloako bide berdearen bigarren zatia inaguratu ondoren, Eusko Jaurlearitzako turismoa sustatzeko Basquetour agentziako zuzendaria, Ana Izagirre, Zeraingo Burdinaren mendira etorri zen bisitan, Goiturko arduradun Nikolas Osinaldek lagunduta. Aitziber Makazagak eta Jakoba Errekondok Aizpita etxeko zerbitzuak, labeen ingurua eta *Polborina* Galeria erakutsi zizkieten.

DNIa berritzeko laguntza

2000ko maiatzean zeraindar askok NAN edo DNIa berritu zuten. Hamar urte pasa dira eta epea amaitu denez,

beste behin berriztatu egin behar da. Lanak errazteko asmotan, nahi duenak Udalera jo dezake. Bertan txanda internet bidez egitea erraztuko da, horretarako karnet zaharra eramanda.

Zerralanen oharra

Zerralan elkarteak bazkideei honako oharra eman nahi die: urteko batzarraren erabakitako kuota ordaindu ahal izateko, Zeraingo Udalean kontu zenbakia eman behar da. Horretarako edo edozein zalantza argitzeko deitu udaletxera.

Immersoren bidaiak

IMSERSOk 2009-2010 denboraldiko Adinekoen Oporraldi Programa zabaldu du. Aurreko urteetan eskaera egin zutenek jadanik etxean jaso dute eskaera orria eta beraz, ez daukate eskaera egin beharrik. Aurten lehen aldiz eskaera bete nahi duenak, udaletxera jo behar du ekainaren 20a baino lehen, ostegunetan 12:15etatik 15:00etara eta Begoñarekin egon.

Kultur Etxeko batzar orokorra ekainaren 6an

Oa Kultur Elkartean urteko batzar orokorra ekainaren 6an, igandea, izango da eguerdiko 12etan.